



bidala eta hain eskaintzen duten errezitala uila kontaktatzen ari gaitza. Mintxo Cemillanen ilustrazioak eta Joserra Senperenak, Maddi Oihenartek, Antton Valverdek, Rafael Berriok eta Oihane Igerabidek grabatutako diskoa ditu liburuak osagarri. *Baso bat opari* du izenburu diskoak, nobelako pertsonaiek Panticosan eskaintzen duten errezitalak bezala. Senperenarekin eta Cemillanekin harreman estua izan du gainera idazleak liburuko testua idaztean; haiekin konpartitu du sormen prozesua, eta bataren musika eta bestearen irudiak lagungarri izan ditu idazten aurrera egiteko. Adore emaile izan ditu diskoan parte hartu duten gainerako musikarien ekarpenak ere.

«Adin ertainean daude liburuko protagonistak», Zubizarretak azaldu duenez, «eta ez da kasualitatea nobela udazkenean kokatuta egotea». 2009eko udazkenean zehazki. «Garai latzak ziren, gatazka pil-pilean zegoen, eta gatazka hori ere agertzen da». Joseba pianistak, halaber, lan horretarako kontratatua duen beilatokin baino ez du jotzen pianoa, eta Nikolas idazleak eta Rafael pintore eta eskultoreak Panticosako errezitala egiteko aukera lortu dute, elkarrekin berriro biltzeko eta bereziki Josebari beilatokitik at ere jendaurrean pianoa jotzeko aukera emateko, bidez batez Josebaren 50. urtebetetzea ospatuz. Beste bi artisten egoera Josebaren antzekoa da: Rafael pintore eta eskultoreak ez du artelan askorik saltzen, eta egurrezko guardasol sendoak egiten ditu dirua irabaziko badu; Nikolas, gogoz kontra, autolaguntza liburuak eta gidak idaztera behartuta dago. Bere burua hil zuen artista batek ere, Gilen izenekoak, nahiz eta bidaiari ez izan, presentzia handia du. «Haren arima ere hor dabil, etengabe».

«Oihartzunez beteta» dago Zubizarretaren eleberria. Egilearen gustuko erreferentzia literario, artistiko eta musikal asko daude txertatuta kontaktetan. «Nire irakurketen sintesi bat dago liburuan. Nire gustuko testuak, aipuak, itxaropenak, obsesioak, frustrazioak... hor doaz, modu batean edo bestean».

«Nobela idaztean, isiltasunean barrura begiratzeko ahalegina egin dut», adierazi du Zubizarretak, «ispilu bat jartzeko neure buruari, eta ispilu hori eskaintzeko irakurleari, ikusleari, entzuleari; identifikatu dadin, edo ez». Horrekin batera, «farandularen mundua» ere agertzen da nobelan, «eszenategiaren atzealdeko mundu hori».

## **Diziplinen arteko elkarlana**

Sormen diziplinen arteko elkarlanarena ez da joera berria

Zubizarretaren idulbidean. «Pintoreengana eta musikariengana hurbildu nahi izan dut, haiekin aberastu. Ikusle eta entzule moduan lehenik, eta gero egile moduan». Sormen lanek «esanahi maila ezberdinak» hartzen dituzte, idazlearen ustez, elkarketaren ondorioz. «Nik idatzitakoari Joserrak musika jarri eta nik Joserraren musikarekin idazten jarraitzen nuen, eta gero Mintxok musika horrekin sortu... Esanahi mailak gorpuztuz joan dira horrela, zentzumenak, emozioak, gogoetak... Pio Barojaren esana gero eta gaurkotuagoa iruditzen zait: nobela zaku bat da non dena kabitzen den. Gaur egun are gehiago. Aukera dago dena sartzeko, teknologikoki behintzat». Nolanahi ere, idaztean «egoista» izan dela dio Zubizarretak, eta bere buruarentzat idatzi duela.

Liburuan ageri den errezitala, *Baso bat opari*, Avilan eta Salamancan (Espainia) eskaini zuten lehenik Zubizarretak, Senperenak eta Cemillanek, gaztelaniaz, eta Gasteizko Salburua auzoan eskaini berri dute oraindik orain, aurrenekoz euskaraz. Leku gehiagotan ere eskaini nahiko lukete aurrerantzean.

Zubizarretak nobelari buruz komentatzen zionetik eta Senperenak grabatutako piezetatik abiatuta osatu ditu Cemillanek liburuko ilustrazioak. «Makularik gabeko marrazkia» egin behar zuela pentsatu, eta «aztarnak» marrazten hasi zen, tintarik gabe, azaldu duenez. Gero, lanak aurrera egin ahala, marrazkiek «eboluzionatu» egin zuten. «Lan zaila izan da, konplexua, baina uste dut ondo geratu dela».

Liburuaren osagarri den diskoak 11 pieza batzen ditu guztira. Batetik, Senperenak sortu eta pianoz jotako sei pieza instrumentala daude; fikzioan, Joseba pianistarenak dira pieza horiek, eta errezitalean jotzen ditu. Bestetik, Zubizarretak idatzitako edo hautatutako testuak musikatzu osatutako beste bost kanta daude, bakoitza musikari batek grabatua: Joserra Senperena, Maddi Oihenart, Antton Valverde, Rafael Berrio eta Oihane Igerabide. Diskoaren grabazioa uztailean egin zuten, Donostian, Senperenaren etxean.

0 iruzkin

Berria

 Saioa hasi ▾

Berrienetik hasita ▾

Partekatu  Gogokoena ★

Hasi eztabaida...